

## **EUSKAL NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN SEKTOREETAN IKERTZAILE ETA TEKNOLO GAZTEAK PRESTATZEKO LAGUNTZAK 2016**

*Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako programaren barruan (doktoratu aurrekoak) hamaika beka deitu ditu doktoratu aurreko programako eta hamar beka, berriz, teknologo gazteak prestatzeko programaren barruan.*

### ***Kontratuaren iraupena eta ezaugarriak:***

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzak urtebete iraungo du, eta urteko luzapenak egin ahal izango dira, gehienez lau urtera iritsi arte.

Teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokienez, bi urteko iraupena izango dute

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako urteko laguntza 16.330 eurokoa izango da, eta horri Gizarte Segurantzaren urteko kuota gehitu behar zaio. Onuradunek, bestalde, 2.000 euroko laguntza osagarri bat izango dute hainbat gastu ordaintzeko: doktoregoetan matrikulatzeko, biltzarretan parte hartzeko, egonaldi laburretarako, etab.

Teknologo gazteak prestatzeko urteko laguntza 12.000 eurokoa izango da, gehi Gizarte Segurantzako urteko kuota. Onuradunek laguntza osagarri bat jaso ahal dute, gehienez, 1.000 eurokoa, hainbat gastu ordaintzeko: kongresu zientifikoetan edo lansaietan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko eta abarrerako erabiliko dute diru kopuru hori.

### ***Lehentasunezko ikerketa lerroak:***

Deialdiaren oinarrietako [I. eranskina](#) kontsultatzea gomendatzen da. Eranskin horretan deialdia egin duen Sailaren iritziz estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+b-ko proiektuen zerrenda dago jasota.

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

- a. Europar Batasuneko hiritarra izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritarra.
- b. EAEko udalerriren batean errolatuta egotea 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez.

- c. Ikertzaileen prestakuntzarako laguntzen programan (doktoratu aurreko beka), [I. eranskinean](#) proiektu bakoitzerako zehaztutako tituluetakoren bat edukitzea eta doktoregoan onartzea eskatzeko eskakizuna betetzea.
- d. Teknologoen prestakuntzarako beka-programan, [I. eranskinean](#) proiektu bakoitzerako zehaztutako titulazio hauetakoren bat edukitzea.
- e. Titulu hori lortzeko ikasketak 2012ko ekainean edo geroago amaituta izatea.
- f. Teknologo gazteak prestatzeko laguntzetarako, ezin izan dute beste antzekorik izan, hau da, nekazaritzako, arrantzako eta elikaduraren arloko eskumena duen sailak emandako antzekorik.
- g. Zehapen administratibo edo penalik ez izatea.

**Eskaerak aurkezteko modua eta epea:**

Hautagaiaren ardura izango da eskaera [II. eranskineko](#) ereduaren arabera bete eta deialdiaren laugarren atalean deskribatutako bideetako bat erabiliz aurkeztea **2016ko urriaren 20a baino lehen.**

**UPV/EHUko TRAMITEA:**

Behin eskaera erregistratuta, UPV/EHUrak atxikitako ikertzaileek [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera bidaliko dute aurkeztutako dokumentazio osoa laguntza emanez gero alta tramitea errazteko.

**Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeko:**

**Aurrez aurre:**

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza  
Donostia, 1 - 3. solairua  
01010 VITORIA/GASTEIZ

**Telefono bidez:**

Javier Latorre Guinea  
Telefonoa: 945 018251  
Faxa: 945 019701  
Helbide elektronikoa: [j-latorre@euskadi.eus](mailto:j-latorre@euskadi.eus)

**Informazio gehiago:**

[http://www.zuzenean.euskadi.eus/diru\\_laguntza/2016/ikertzaile-eta-teknologo-gazteentzako-bekak/s68-contay/eu/](http://www.zuzenean.euskadi.eus/diru_laguntza/2016/ikertzaile-eta-teknologo-gazteentzako-bekak/s68-contay/eu/)